



**LAZKAOKO
UDALA**

ZIRRIBORROA.-

**2023KO URRIAREN 9KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urriaren 9an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onspenera aurkeztu da 2023ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 76 zenbakidun fakturen zerrenda, BERROGEITA HEMERETZI MILA ETA LAUROGEITA LAU euro ETA BERROGEITA SEI HAMASEI zentimokoa (59.084,46 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN, AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN, OINEZKO PASABIDEAREN LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza erreka gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen lehen obra egiaztagiria egin du. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA SEIREHUN ETA HOGEITA HAMABOST euro ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI zentimo (196.635,97 €) gehi B.E.Z.ri dagokion BERROGEITA BAT MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIRU euro ETA BERROGEITA HAMABOST zentimo (41.293,55 €) da, guztira BERREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI euro ETA BERROGEITA HAMABI zentimo (237.929,52 €).

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. enpresa ari da burutzen.

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.



Amundarain zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea zergatik egon zen itxita zubiaren aurrekaldea zubiaren instalakuntzaren ondoren. Alkateak erantzun dio muntaia lanetan ibili zen garabiak olio isuri bat izan zuela eta zorua zikindu zela. Hau dela eta irristakor gelditu zen eta itxi egin zuten ezbeharrrik gerta ez zedin.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla proiektuarekin bat egiten ez dutelako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), lehen obra egiaztagiri hau onartu egin du.

IV.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- San Benito ikastolako 1. Batxilergoko ikasleei.-

2023ko San Miguel jaietako egitarauaren barruan antolaketa lanak egiten laguntzeagatik, 800 €-ko dirulaguntza ematea.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.

- Oin Arin dantza taldeari.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 15.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

2023ko urtarrilaren 23ko Tokiko Gobernu Batzordean, hitzartutako kopuruaren % 60 ordaintzea onartu zen.

Orain, ordaintzeko falta den % 40 ordaintzea onartu da, 6.000 € hain zuzen ere.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.

- Zagupe astialdi taldeari.-


Talde hau eta udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 2.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

2023ko martxoaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordean, hitzartutako kopuruaren %60 ordaintzea onartu zen.

Orain, ordaintzeko falta den % 40 ordaintzea onartu da, 800 € hain zuzen ere.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.11.334.00 partidatik ordainduko da.





LAZKAOKO
UDALA

V. EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei 2023ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

| MERKATARIA | GUZTIRA |
|----------------------------------|-----------------|
| Joana Plasencia Zunzunegi (Xanu) | 126,24 € |
| GUZTIRA | 126,24 € |

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA